

## **Anhauze Pekoainia sortetxeko familia**

E.: gaur emen gira Felixi Xangalaikin, atsalde on, Felixi.

F.: bai zuri e.

E.: berdin asiko zira erranez noiz tan un sortia ziren zu.

F.: hemen, Pekoainian sortia, eta azaroain beatzian, mila beatzieun ta oitamairuan emen, hemen sortia, ta mementoan emen egonki.

E.: familia ederra zinezten? Zenbat aurride?

F.: gu lau, lau ginen, bi mutiko ta bi nexka, artian birazkakoak, ni gaztena.

E.: eta denak hemen sortiak?

F.: denak emen sortiak, ba, ba, denak Anauzen sortiak.

E.: etxean?

F.: etxean, ba, ba, leen ala iten zen etxean, ba. Housset medikiaikin, amak erten zin Housset medikiaikin sortiak ziela, ginela alo.

E.: nolako orroitzapenak tuzu zuk etxe untan, zure haur denboraz, ttipia zinelaik eta... Zenbat zinezten, hemen bizi zinezten...

F.: emen gu lau aurrak eta aita-amak sei, aitatxi doi-doia zautu ut eta bost urte, nik bost urte nidilaik ila da, negian, supazterrean egoiten ginen eta gaztenak erretzen, ta denak elgarrekin gaztenak jaten, eta ala, ba, orroitzapen onak, ba.

E.: Elizari ta atxikiak zien etxean zure aita-amak.

F.: ba ba, denbora guzian aitatxi ta denak, aita-amak, denak joaiten ginen gu mezaat eta bezperetat, beant artio, beant artio, leen ala zen, ola iiltzen zen.

E.: nola pasatzen zen hemen etxeko bizia zu aurra zinelaik, eskolaz aparte bixtan da, bena lanetan eta parte artzen zinuten?

F.: ba, ba, ama launtzen ginin, ba ni ardurenian eta kanpoan nintzan, aizpa bainin zaarrogua, aitainkilan, aitaikilan, aitaikin maite nin biziki joaitia, ba.

E.: kanpoko lanetan?

F.: ba, kanpoko lanetan, bat tipian ez, gero ba, gero ba, ai izan bearko, anaia re joan baitzen eta oita lau urtetan Ameiketat, geo bakarrik baatu nintzan hogeitau urte.

**Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala